



## OPEN DAYS 2011 ESKUALDEEN ETA HIRIEN EUROPAKO ASTEA



**Urriaren 10etik 13ra** bitartean **Open Days 2011** izenekoak egingo dira Bruselan. Bertan 111 saio egingo dira, eta 500 hizlarik baino gehiagok hartuko dute parte horietan. Parte hartuko duten 6.000 lagun baino gehiagorekin harremanetan jartzeko aukera izango da bertan.

Nazioko eta eskualdeko arduradun politikoek ez ezik, enpresetako, gizarte zibileko eta esparru akademikoko profesionalek eta ordezkariak ere hartuko dute parte ekitaldian.

Aurtengo edizioan hiru gai nagusiren ingurukoak izango dira **Open Days** eztabaidak:

- **Europa 2020:** *Nola lagunduko dute kohesio-politikak eta egitura-fondoek hazkundea adimentsua, iraunkorra eta inklusiboa izan dadin?*
- **Hobeto gauzatzea:** *Nola gauza dezake hobeto Europar Batasunak kohesio-politika, orain eta 2013tik aurrera?*
- **Geografia garrantzitsua da:** *Zein da lurralde-lankidetzaren etorkizuna eta zer ikas dezakegu hirugarren herrialdeetatik?*



**OPEN DAYS 2011ri buruzko informazio gehiago:**

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/conferences/od2011/index.cfm?nmenu=1&sub=100](http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/od2011/index.cfm?nmenu=1&sub=100)